ELA
EUSKAL SINDIKATUA

**Bere XIII. Kongresuaren bezperan (2013ko urtarrilaren 23 eta 24an Bilbon)**

# ELA sindikatua zenbait zenbakitan




Kongresu batetik bestera, espainiar estatuak bizi duen krisi ekonomiko ikaragarria hor da. ELA sindikatuak prentsaren esku uzten du bere kideen kopuru xuxena kontrolatzen (*), lehen aldikotz bere kideen kopuruaren beherapena aurkeztu du, 109 318 tik (2008ko irailaren 30ean) 105 312rat (2012ko irailaren 30ean) pasatuz, hots -%3,66. ELAk hego Euskal Herriko enplegu galtze oso garrantzitsuaren ondorioa jasaiten du (-127 500 enplegu 4 urtez, 923 300 langile direlarik orotarat, hots -%12,13).

Egia erran, zenbaki horiek ELAk biziki ongi eusten duela agerian uzten dute, bere sindikatze tasak marka historikoak hausten ditu, hego Euskal Herriko langileen %9,64tik 2008an, %10,34ra pasatuz 2012an (+ %7,26). ELAn sindikatu diren langileen %56ak, 50 langile baino guttiagoko enpresetan lan egiten du eta ELAren presentzia sektore pribatuan sektore publikoan bezain bat hedatua da.

Hego Euskal Herriko hauteskunde sindikaletan, Nafarroa kondatuz, ELAk segitzen du gehiengo zabala lortzen %35,04 emaitzarekin (%39,59 Euskal Autonomia Erkidegoan) CCOO (%21,27), UGT (%16,57) eta LABen aintzinean (%16,28).

Sindikatuaren autodiruztatze tasak bere aintzinatze iraunkorra segitzen du. 2008-2011 garaian, ELAren aurrekontuaren %88,95a bere kideen kotizaziotik etorri da, %85,72 zelarik 2004 eta 2007 artean.

ELAn sindikatuak diren %97,98ek beren kotizazioa eguneratua dute (18,17 euro hilabeteka).

ELA sindikatuaren erresistentzia kutxak hilabete sariak ordaintzen ditu greba garaietan, 800,65 euro (Espainian lansari minimoaren %107a) eta 1601,30 euroren artekoak, gatazka moten arabera.

(*) Prentsa ELAko kideen fitxategitik 200 banku zenbaki hartzea aizu da, banku desberdinetan ELAri isuriak zaizkion kideen hilabeteroko kotizazioak diren ala ez ikusi ahal izaiteko. Gardentasun adibide bat, ezohizko sindikalismo horren ezaugarrietariko bat dena.

## ELA

ELA (Euskal Langileen Alkartasuna) hego Euskal Herrian ordezkaritza sindikal zabalena duen konfederezio sindikala da. 100 000 langile bateratzen ditu hego Euskal Herrian (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa kondatuz). Azpiegitura bikoitza badu bere kideen gidatzeko 12 eskualde batzordetan eta 4 federaziotan : Metala, Gizalan (zerbitzu publikoak), Zerbitzuak (zerbitzu pribatuak) et Hainbat (metalurgia gabeko industria, eraikuntza, garraioak eta beste).

Bere eredu sindikala, kontra-poderekoa eta elgarrizketa soziala instituzionalizatuarekin kritikoa, finkatzen duen bi ezaugarri nagusiak independentzia politikoa eta finantziarioa dira.

ELAk, klase sindikatu demokratiko gisa, bere borroka hiru arlo zehatzetan jorratzen du :

Negoziazio kolektiboa, aberastasunen banaketa lortzeko elementu giltza gisa. Erresistentzia kutxa ukaiteak beste sindikatuetatik desberdintzen du, enpresa edo sektore mailako grebetan askoz gehiago eusteko ahala emaiten diolako.

Gizarte eredua, eta zehazkiago politika sozial zuzenagoen, zerbitzu publikoen defentsaren eta zerga sistema progresistaren aldeko borroka.

Baita ere, euskal nazioaren inguruko borroka demokratikoan, sindikatu gisa bere herriaren burujabetza osoaren alde egiten du.

Ipar Euskal Herrian (administratzio Frantses pean) ELAren jarduera Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioaren bidez garatzen da, formakuntza eta animazio sozial eta kultural garrantzitsu batekin.

ELA EUSKAL SINDIKATUA

## A la veille de son XIIIème Congrès (les 23 et 24 janvier 2013 à Bilbao)

# Le syndicat ELA en quelques chiffres




D'un congrès à l'autre, la terrible crise économique que connait l'Etat espagnol est passée par là. Le syndicat ELA qui laisse la presse vérifier le nombre exact de ses adhérents (*) a présenté pour la première fois une baisse du nombre absolu de ses adhérents, qui passe de 109 318 (au 30 septembre 2008) à 105 312 (au 30 septembre 2012), soit -3,66 %. ELA subit là les conséquences de la perte très importante d'emplois en Pays Basque sud (-127 500 emplois en 4 ans sur un total désormais égal à 923.300 salariés, soit -12,13 %).

En fait, ces chiffres montrent qu'ELA résiste admirablement bien, et son taux de syndicalisation bat des records historiques, passant de 9,64 % des salariés du Pays Basque sud en 2008 à 10,34 % en 2012 (+ 7,26 %). 56 % des syndiqués à ELA travaillent dans des entreprises de moins de 50 salariés et son implantation est aussi importante dans le secteur privé que dans le secteur public.

ELA est toujours largement majoritaire aux élections syndicales du Pays Basque sud, Navarre comprise, avec un total de 35,04 % (39,59 % dans la Communauté Autonome Basque) devant les CCOO (21,27 %), l'UGT (16,57 %) et LAB (16,28 %).

Le taux d'autofinancement du syndicat continue sa progression constante. Le budget d'ELA a été autofinancé par les seules cotisations de ses adhérent-e-s à hauteur de 88,95 % pendant la période 2008-2011, contre 85,72 % pour la période 2004-2007.

97,98 % des syndiqués d'ELA sont à jour de cotisation (18,17 euros par mois).

La Caisse de résistance du syndicat ELA verse en temps de grève des indemnités mensuelles comprises entre 800,65 euros (107 % du salaire minimum en Espagne) et 1601,30 euros selon les types de conflits.

(*) Les différents médias différents ont le droit de tirer au hasard 200 numéros de compte bancaire du fichier de syndiqués d'ELA et de vérifier auprès des banques respectives qu'ils correspondent bien à des adhérents virant mensuellement leur cotisation au syndicat. Un exemple de transparence qui est une des autres caractéristiques de ce syndicalisme atypique.

## ELA

ELA (Euskal Langileen Alkartasuna – Solidarité de Travailleurs et Travailleuses Basques) est la confédération syndicale la plus représentative du Pays Basque sud. Elle regroupe plus de 100.000 travailleurs et travailleuses du sud du Pays Basque (Communauté Autonome du Pays Basque et Communauté Forale de Navarre). Elle est dotée d'une double structure qui lui permet d'encadrer ses adhérents et adhérentes en 12 Unions Régionales et 4 Fédérations: Metala (métal), Gizalan (services publics), Zerbitzuak (services privés) et Hainbat (industrie non métallurgique, bâtiment, transports et autres).

L'indépendance politique et financière sont les deux grands traits qui définissent son modèle syndical de contre-pouvoir, critique envers le dialogue social institutionnalisé.

ELA, en tant que syndicat de classe et démocratique développe sa lutte dans trois domaines bien définis:

La négociation collective, en tant qu'élément clé de distribution de la richesse. Sa caisse de résistance (fonds de grève) le distingue entre tous les syndicats comme une organisation dotée d'une grande capacité de résistance dans les conflits et les grèves d'entreprise ou de secteurs.

Le modèle de société et plus précisément, le combat pour des politiques sociales plus justes, la défense des services publics et une fiscalité progressiste.

Et également, la lutte démocratique sur la question nationale basque en tant que syndicat basque engagé en faveur de la souveraineté entière de son peuple.

Au nord du Pays Basque (sous administration française) l'activité de ELA se développe par le biais de la Fondation Manu Robles-Arangiz Institutua, via un travail important de formation et d'animation sociale et culturelle.